



Bertsozale Elkartearen Berripapera

ESPAÑA	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2019ko AZAROA - 208 zenbakia

Abian da Haizea dator ekimena

Lapurdi, Baxenabarre, eta Xiberoko bertsolari gazteei plazak eskaintzeko Haizea Dator ekimena abiatu da. Urrian izan zen lehenengo saioa eta hilabetero izanen dira aurrerantzean ere.

Bertsularien Lagunak elkarteak bertso-transmisio lantaldeak ekimen berria sortu du: *Haizea dator* gazteentzako saio sorta. Ekimenaren helburua Lapurdi, Baxenabarre eta Xiberoko bertso-eskoletako ikasleei eta jadanik bertso-eskolatik atera diren bertsolari gazteei saioetan kantatzeko aukera ematea da.

Gazteei bertsoan aritzeko plazak eskaintzeaz gain, lurralde osoan eragiteko asmoa du ekimenak: bertsozaletasuna sustatuz, jendea elkartera hurbilaraziz, haurrak antolatzaile aktibo bilakatuz eta zirkuitu berri bat sortuz.

Ekimena gauzatu ahal izateko, hiru lurraldeetan gaindi dauden bertso-eskolak izango dira beraien herrietan saioak antolatuko dituztenak, ondoren, gazteek kanta dezaten.

Hilabetero saio bat

Zortzi saio antolatuko dira orotara, hiru lurraldeetan gaindi. Lehenengo saioa urriaren 4an egin zen Muskildin eta, antolatzaileen esanetan, "biziki harrera ona" izan zuen. Guraso eta bertsozaleak hurbildu ziren bertso saioaz eta ondorengo aperitifaz gozatzeko asmoz. Kantuan Maddi Ane Txoperena, Aitor Servier, Oneka

Arteaga, Aetz Etxart, Xabi Negueloua eta Naia Etxeberri Larzabal aritu ziren.

Hurrengo saioetarako datak eta lekuak ere prest daude: azaroaren 8an Senperen izanen da saioa Larralde Baserrian; abenduaren 6an, Hendaiako Baleak elkartearen; urtarrilaren 10ean, Itsasuko Goxoki gaztetxean; otsailaren 6an, Baionako Kalostrape ostatuan; martxoaren 13an, Azkaineuko Xoko Ona ostatuan; apirilaren 2an, Urruñako Berttoli elkartearen; eta azkena, maiatzaren 15ean, Baigorriko Basaizea elkartearen.



Muskildin jokatu zen Haizea dator ekimeneko lehenengo saioa, urrian. / XDZ



MAIALEN
LUJANBIO ZUGASTI

Donostia 2019-X-02

Passion for Knowledge – Bertso zientzia ekitaldiak

Doinua: Espainian behera

Entzunik zuen speech solas ta mitina geratu ote zaigu behintzat zipriztina milesker ta goraintzi zientzilari fina guk pentsatuko dugu jakinik pittina jakintza bezain ona dela jakin-mina

Argitalpenez eta emanaldiz beteta goaz Durangoko Azokara

Bertsozale Elkartea eta Lanku Kultur Zerbitzuak Durangoko Azokan egongo gara aurten ere: argitalpenak, Gipuzkoako Txapelketako finaleko sarrerak eta emanaldiak ere eramango ditugu Durangora; Goienkale 40an izango gaituzue zain.

Abenduaren 5etik 8ra zabalduko ditu atekak 2019ko Durangoko Azokak. Euskal kultur gintzan egiten diren ekoizpenen erakusleho da Durango, horregatik, Bertsozale Elkartea eta Lanku Kultur Zerbitzuak ere han izango gara bertsolaritzari loturiko produktuak eskainiz eta ekitaldiak aurkeztuz, Goienkale 40 standean.

Argitalpenei dagokienez, Koldo Izagirreren *Bertsoaren Harria* liburua kaleratuko dugu, Lankuren bitartez. Lan honetan, Euskal Herrian barreiatuta dauden 21 bertso-harri edo eskultura irudietan eta hitzetan jaso ditu Izagirrek.

Bestalde, *Houston, arazotxo bat daukagu!* Andoni Egañaren eta Joxerra Garziaren lana ere standean izango dugu. Lana CD formatuan dator eta, barrenean, Andoni Egañak 1999an Hernaniko Bertso Latan Joxerra Garziak jarritako gaiei erantzunez eskainitako bertso saioa jasotzen du CDak.

Azkenik, UPV/EHUK argitaratuko duen *Kultura ez da batekoa* liburua ere standean salgai izango dugu. Argitalpena Alfredo Retortillok, Harkaitz Zubirik eta Xabier Aierdik osatu dute, eta Bertsozale Elkartek eskatu eta Mintzola Ahozko Lantegiak bideratutako Bertsozaletasunaren Ikerketa Soziologikoa biltzen duen liburua da.

Horretaz gain, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finaleko sarrerak ere gure standean erosi ahal izango dira. Gipuzkoako finala Donostian jokatuko da abenduaren 14an.



Goienkale 40 stand-ean izango gaituzue Durangoko Azokan. . / XDZ



Emanaldiak ere eskainiko ditugu. / XDZ

Emanaldiak ere, aukeran

Durangoko Azokan stand izateaz gain, emanaldiak ere antolatuko ditugu. *Bertsoaren Harria* liburua standean eskuratzeko aukera izateaz gain, aurkezpena ere egongo da Durangon, Ahotsenean, Lankuren eskutik. Abenduaren 6an izango da, ostirala, 17:30etik aurrera eta Iñaki Murua mintzalagunak gidatuta, Koldo Izagirre egilea izango da bertan.

Abenduaren 8an, igandea, *Kultur sorkuntzen dokumentazioa, etorkizuneko apustua* solasaldia egongo da 13:00etan Areto Nagusian, Xepelar Dokumentazio Zentroaren eskutik. Solasaldi horren bidez, kultur sorkuntzen eta proiektuen garapenean dokumentazio egitasmoen estrategikotasuna mahairatu nahi da. Horretarako, kultur diziplinatuko adituek beraien esperientziak partekatuko dituzte: antzerkia, bertsolaritza, dantza, txotxongilolaritza eta zinema. Hurrengoak dira adituak: Idoia Gereñu -Euskal Herriko Antzerkizale Elkartea-, Ixiar Eizagirre -Bertsozale Elkartea-, Gari Otamendi -Dantzan.eus eta Dantzagunea-, Maria San Sebastian -Topic- eta Ion Lopez -Euskadiko Filmategia- izango dira hizlariak. Xepelar dokumentazio Zentroko Nere Erkiagak gidatuko du saioa.

Gogoratu: zuen zain egongo gara Goienkale 40an dugun standean!

Bertsolaritzaren inguruko ikerketak ezagutuko ditugu **abenduaren 4an, Mintzola Mintegian**

Hainbat ikertzailek beraien ikerketa lanak aurkeztuko dituzte Amasa-Villabonako Subijana etxean, 18:00etatik aurrera; sarrera doakoa izango da

Abenduaren 4an egingo dugu Amasa-Villabonako Subijana etxean Mintzola Mintegia, 18:00etatik aurrera. Hitzaldi sorta hau, ahozko kultur sorkuntzari loturiko ikerketak ezagutarazteko antolatu izan dugu 2016tik UPV/EHUKo Mikel Laboa Katedrarekin elkarlanean. Erakusleho gisa bakarrik ez eta ikerketak eragiten bi erakundeok elkarrekin egindako bidea aberasgarria izan da, oso: banatutako ikerketa kontratuek zein proiektu sariek lan ugari sortu dituzte, eta beste zenbait ikertzailek ere interesgarritzat jo dute bertsolaritza jakintza alor ezberdinetatik aztertzea.

Aurtengo ikerketa sarien deialdian, Jon Gurrutxagak eta Kepa Matxainek eskuratu dituzte ikerketa garatzeko proiektu sariak. Gurrutxagak azkeneko bost Bertsolari Txapelketa Nagusietan nazio-identitatearen eta nazio-gatazkaren inguruko diskurtsoen bilakaera aztertuko du; Matxainek bertso kanonaren eraikuntzan ahozko hizkeraren balioa ikertuko du. Maialen Akizuk, berriz, diskurtso analisiaren metodologia erabilia, 2001eko eta 2017ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren finaleko gaiak aztertu ditu; ikerketa horri esker, Soziologia eta Politika Zientziako Gradu Amaierako Lanen (GRALen) I. Saria jaso du Akizuk.

Gainera, Udako Euskal Unibertsitatearen bitartez kaleratutako *Bertsolaritza feminismotik (bir)pentzatzen* liburua aurkeztuko dute Ane Labaka eta Miren Artetxe bertsolari eta ikertzaileek. Liburua bera erosteko aukera izango da. *Bertsolaritza Genero ikuspegitik* jardunaldietan egindako ekarpenekin eta beste gogoeta batzuekin osatutako argitalpena da; besteak beste, bertan hartu du parte Elixabete Perez doktoreak, eta bera ere izango da Mintzola Mintegian, Joxepa Antoni Aranberri bertsolariari buruz aritzeko.

Segidan, Antxoka Agirrek bertsolaritzari eta hedabideei buruz egin duen doktore tesia aurkeztuko du, eta lehen emakume bertsolari haien hedabideetako oihartzunaz ariko da. Azkenik, amaitzeko, Eñaut Agirre doktoregaiak emakume bertsolarien hiru adibide ekarriko ditu, hitzez eta kantuz.

Eguna biribiltzeko, ekitaldiaren amaieran, euskarazko ahozko kultur sorkuntzari buruzko Gradu Amaierako Lanen I. Sariaren banaketa egingo da.

Mintzola Mintegia doakoa eta irekia da: interesa duen edonor etor daiteke. Esan gabe doa: ongietorriak izango zarete!



Abenduaren 4an izango da Mintzola Mintegia Amasa-Villabonan. / XDZ

Bertsolaritza, **Ahots Baten sormen egonaldian**

Euskarazko beste zenbait ahozko kultur sorkuntzarekin uztartuko da bertsolaritzaren lanketa eta gozamina bosgarren urtea duen egonaldian. Amets Arzallus eta Onintza Enbeita batuko dira taldera egun horretan.

Abenduaren 26tik 30era bitartean egingo da Ahots Baten sormen egonaldia Azkoitiko Abaraxka aterpetxean, Mintzola Ahozko Lantegiaren eta Ikastolen Elkartearen eskutik.

Bosgarren urtea du euskarazko ahozko kultur sorkuntzak biltzen dituen egonaldi honek: egun bakoitzean adierazpide bat lantzen dute han elkartutako gazteek eta aurtan bertsolaritzak ere izango du bere lekua. Gainera, sorkuntza

bakoitza aditu batekin landuko du taldeak, eta bertsolaritzaren egunean Amets Arzallus eta Onintza Enbeita izango dira; Ainara Gurrutxaga aktorea, Iban Urizar "Amorante" kantaria eta Harkaitz Cano idazlea izango dira gainerako egunetan.

Izen-ematea irekita dago abenduaren 2ra arte. 15 eta 22 urte bitarteko gazte sortzaileek eman ahal izango dute izena. Informazio gehiago, www.mintzola.eus atarian.



Puntu jarrita

ALAITZ REKONDO FERRERO

Galdera ona egin didazuna Maite! Taldean edo bakarka? Taldekoak ere bakarkako lana berekin darama, ez da hala? Bakarka aritzeak baditu bere alde onak eta ez hain onak. Bakarkako lanean zuk egin eta desegiten duzu, zuk nahi duzun doinu eta neurrian, zureak dira erabakiak, arriskuak eta ardura guztia. Taldekakoak bakarkakotik baduela aipatu dut, eta horrela da, zure lan hori taldera daramazun arte zurea da, baina behin mahaiaren gainera aurkeztu ondotik, taldekoa bihurtzen da. Taldean ezin zara doinu eta neurri librean aritu. Badago jarraitu beharreko molde bat, adostasun bat, oreka ba, sintonia bat. Hori bai, ardura partekatua izaten da eta horrek bere garrantzia badu. Talde bat atzean edukitzea, talde bateko partaide sentitzea gauza ederra da. Gezurrik ez dut erranen, zaila ere bada eta egun guztiak ez dira onak izaten, baina merezi du.

Ni txapelketan egin naiz gai-jartzaile. Beraz, taldean lan egiten ohituago nago eta gustukoa dut. Nafarroako Txapelketak eman dit urte luzeetan horretarako aukera, baita Txapelketa Nagusiak ere. Talde desberdinetan aritzea suertatu zait herrialdean, 3-4 lagunek talde batetik, 10-12 lagunek osatutakoraino. Gure onenak bertan utzita egin dugu lan denok ere, emaitza ahalik eta txukunena lortu asmoz. Denetan ikasi dut zerbait, dudarik ez dut!

Txapelketak eman dit ere aurkezle aritzeko aukera. Hori bai dela bakarkako lana! Eta norbaitek lekukoa eman zidalako goitu ahal izan nintzen oholtzara. Mikel Taberna aipatzea dagokit puntu honetara ailegatuta, berak utzi zuen lekua bete bainuen nik. Oholtzatik jaitsi zen bai, baina bertsoaritzaren hurbiletik jarraitzen duela badakit. Beraz, nire galdera berari luzatuko diot: Mikel, nola bizi izan duzu gai-jartzailetza oholtza azpitik?

Bazkideen datuak eguneratzen

Zurekin dugun harremana ahalik eta biziena izan dadin, etengabe berrikusi eta eguneratzen ditugu bazkideen datuak. Honenbestez, eskertuko dugu bertsozale@bertsozale.eus helbidera ondorengo datuak bidaltzea, eta, hala, gure datu basea egunean izango dugu: izen-abizenak, nortasun agiria, jaiotze data, helbidea, posta elektronikoa, telefono zenbakia eta IBAN kodea. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak Datu Pertsonalak Babesteko legediak xedatzen duenari jarraituz jokatuko du, eta zainduko ditu datuok.

Poto-Finixa



"Buru barrua alda dadila/buru gaina bezalaxe".

Andoni Egaña

Zabalik dago Udabarria Bertsoan izena emateko epea

Bizkaiko Bertsolari Txapelketarako baliagarria izango den Udabarria Bertsoan 2020 sailkapen fasean izena emateko epea zabaldu da: azaroaren 14ra arte egongo da horretarako aukera. Izena emateko baldintzak hurrengoak dira: 2020an 18 urte beteta edukitzea, bizkaitarra izatea edo Bizkaian bizi izatea eta Elkarteak izatea. Izena emateko www.bertsozale.eus atarian dagoen formularioa bete beharko da.

Bertsolaritzaren historia puska bat irudiz, bertsoz, istorioz eta fikzioz. Ikuspuntu berria, liburu bakana, edizio berezia.



PUBLIZITATEA